

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2020

Joan den urriaren 10ean Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren fiskalizazio-txostena, 2020ko ekitaldiari dagokiona; baita, Osatek SArena ere, zeinetan Osakidetzak baltzu kapitalaren % 100en jabetza duen.

Bi erakundeen **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du; salbuespen da Osakidetzaren kasuan, langileria jakin baten erretiro osagarriengatik geroko ekitaldietan ordaindu beharreko obligazioak kontabilizaturik ez izatea; honela, bada, 2020ko abenduaren 31n kontabilizatzeko dagoen zenbatekoa 88 milioi euro dela balioetsi da.

Txostenak ondorioztatu du Osakidetzak eta Osatek SAk **zuzentasunez bete dutela** 2020ko jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen lege-araudia, nahiz eta unean uneko akatsak azaleratu diren kontratazio administratiboaren arloan (Osakidetzak kontratu txiki gisa izapidetu ditu produktu eta ondasun higitarren eta inbertsioen hainbat hornidura, eta Onkologikoa zentro sanitarioak, Administrazio Publikoa ez den Botere Adjudikatzaileraren aldetik, ez ditu bete horniduren erosketa eta zerbitzu-prestazio jakin batzuetan aplikatu beharreko kontratazio-prozedurak).